

Transmisioaren galeraren larritasuna agerian utzi dute Kanboko Topaketetan

Frantziaren menpeko herrialdeetako hizkuntzen erosio tasa %47 eta %90 artekoa da

AITOR RENTERIA
Kanbo

Frantziaren menpe dauden hizkuntza gutxituen egoera ezagutzeko parada ematen dute inkestek eta erroldek. Erramun Baxokek azken inkesta soziolinguistikoan eta Frantziako INSEE errolde erakundeak egindako lanen emaitzak aztertutik atzotik Kanboko Topaketetan (Lapurdi). Oro har, hizkuntza gutxituek pairatzen duten erosio handia eta familia barreneko transmisioaren ahulezia ekarri zituen gogora.

Frantziako Konstituzioko bigarren artikulua erran arren Errepublikaren hizkuntza frantsesa dela, estatuan bertze hizkuntza bat baliatzen duten 11 milioi pertsona daudela azpimarratu zuen Baxokek, inkesta soziolinguistikoan bilakaeran oinarrituz. Adibidez, 600.000 mila lagunek erregularki baliatzen dute alsaziera, 610.000 lagunek okzitaniarra, 110.000ek kreolera. Ipar Euskal Herrian 62.773 lagunek ezagutzen dute euskara eta naturaltasunez baliatu. Alta, 80.000 inguru dira Frantziako euskara dakitenak. Hiztunen laurdena, irizpide horren arabera, ez da Ipar Euskal Herrian bizi.

Erosio tasa, transmisioaren galera, handia da herri hizkuntza guztietan. Alsaziera da tasarik apalena daukana (%47). Euskarene erosio tasa %58koa da Ipar Euskal Herrian, katalanaren erosioa %80 da, eta tasarik handiena bretoierak dauka, %90. Kopuru horien argira familia transmisioan



Erramun Baxok eta Francois Elizalde, atzoko saioan. BOB EDMÉ

arazo larria dagoela nabarmendu zuen Baxokek. «Malda igo daiteke orain artean familiak bete duen eginkizuna betetzen baldin badu eskolak».

INKESTEN ARAZOAK. Egindako lanaren emaitzak eta gizartearen bilakaera ezagutzeko datuak eskuragarri ote dauden eskatu zion Baxokek Francois Elizalde Akitaniako INSEEk zuzendariari. Erroldearen osaketaz arduratzen da INSEE Frantzia osoan, eta prozeduran egin duten aldaketa azaldu zuen erantzun aitzin. Izan ere, abantzu hamar urtez egiten zituen Frantziako erroldek. Eraginkorrako iza-teko asmoz, prozedura aldatu dute, bi moldetan arituz. 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan inke-

ta atez ate egiten da, bost urteko epean; hiri handietan, aldiz, biztanleriaren %8 lagintzat hartzen da. «2009ko urtarrilean ukanen ditugu erantzun zehatzak eta ordura arte tentuz hartu behar dira emaitzak, herri bateko errealitatea ez delako bertzeena».

Baxoken galdera erantzun gabe itxaropentsu egoteko adibideak badaudela erran zuen, hebreera aipatuz. «Erabat desagertu ondoren gaur egun bost milioi lagunek baliatzen dute, eta horrek frogatzen du eskolak transmisioa berma dezakeela, familiak ez egin arren».

Erroldek arazo zehatzei erantzuteko gaitasun gutxi daukala zehaztu zuen Elizalde. INSEEk erlijioari eta politikari buruzko galderarik ez duela egiten azaldu zuen.

Alfabetatze tasari buruzko galderak egiten dituzte, hala ere, baina Frantziako ikuspegian oinarrituta. «Alfabetatze gabekoentasa %10-%15 da Frantziako, eta ez dago arrazoirik pentsatzeko Ipar Euskal Herrian bertze emaitza batzuk egon daitezkeela, beraz, 8.000 inguru izanen dira». Alta, INSEEn galdera ez da zenbat euskaldunek ez dakiten euskaraz idazten edo irakurtzen. Frantsesez dakiten edo ez galdetzen du INSEEk.

Tokian tokiko galdeketekek fidagarritasun gutxi daukatela azaldu zuen: «Zaila bada Frantzia osoan aurkitzea zenbat euskaldun dauden, pentsa zer izan daitekeen bilatzea zenbat pertsona dauden alfabetatu gabe eta, gainera, lurralde txiki batean».

Ikasle Eguna eta Ikasle Topaketak izango dira hilaren 17an Usurbilen

NAGORE VEGA
Donostia

Ikasle Abertzaleak (IA) taldeak antolatuta, Ikasle Eguna eta Ikasle Topaketak egingo dira datorren larunbatean, hilaren 17an, Usurbilen (Gipuzkoa). Aurtengoa zazpi-garren aldia da, eta berezia izango da, azaroaren 17a Ikasleen Nazioarteko Eguna delako. *Ikasiz, irauliz, eraikiz... Borrokak egingo gaitu!* izango dute leloa.

Iako bozeramaile Eneritz Perez eta Gorka Zozaiak Ikasle Eguna nondik norakoak azaldu zituzten atzo: «Ikasleok hitza hartu behar dugu gainera datorrigun ofentsibaren aurrean, Bologna Prozesuaren inposaketaren aurrean, eskubide demokratikoen urraketen aurrean eta eskolak birproduzitzen duen patriarkatuak eragiten duen egoeraren aurrean». Horiek salatzeke, hilaren 17an, Usurbilen, Ikasle Topaketak izango dira 11:00etan hasita. Taldetan banaturik, Bologna Prozesuari, eskubide demokratikoei eta emakumeen indarkeriari buruz ariko dira. 14:30ean bertso bazkaria izango da: Jokin Uranga eta Fredi Paia bertsolariak ariko dira bertsoan, besteak beste.

17:00etan, internazionalismoaren, Kamaradak gazte internazionalisten sarearen eta IAK abenduan 15ean egingo duen kongresuaren gaineko hitzaldiak izango dira, sextabaida eta maskulinitate ereduaren inguruko hitzaldi-tailer bat eta jolasak ere izango dira.

Hitzaldien ondotik, *Ikasiz, irauliz, eraikiz... Borrokak egingo gaitu!* lelopean, manifestazioa egingo dute, eta 20:30ean ekitaldia izango da. Kontzertuekin amaituko da eguna: Latzen, Oliba Gorriak, Delorean, Ojos de Brujo eta Edan taldeak izango dira.



Boluntario bila gabilta.
943 46 46 22



DYA
GIPUZKOA